

Enrike Etxebarriak eta bere artaldeak larre-aldaketa egin dute “San Joanek jagon ditzala Arrabako landan!”

Testua eta argazkiak: Jon Urutxurtu

Urtero, udaberrian natura neguko letargiatik iratzartzeaz batera, larre-aldaketaren lekuko izaten da Gorbeia, abelgorri, behor, ahuntz eta batez ere ardiak mendira joaten baitira. Joan den maiatzaren 28an, Elexartza baserritik abiatu, Arrabako landaraino larre-aldaketa egin zuten Enrike Etxebarriak eta bere artaldeak, eta Zeanurira hurbildu zirenei ekintza horretan parte hartzeko aukera eskaini zien Ipizki Taldeak.

Ana Mari arrebak ur bedeinkatua bota ondoren, eta “San Joanek jagon daizala (ditzala) Arrabako landan!” esaldiarekin artaldea artzainen patroiairen babespean jarrita, Zeanuriko Elexartza baserritik abiatu ziren Enrike Etxebarria eta bere ardiak, Arrabako landara (Gorbeia) joateko, lehenago aitak eta aitaitak urtero egiten zuten ibilbide berbera eginez.

Antzinako indarrarekin ez bada ere, oraindino bizirik dirau abeltzaintzak Gorbeia mendiaren inguruetako herrietan. Lur horietan aspaldidanik abelgorri, zaldi, ahuntz eta batez ere ardi aziendak bazkatzen dira. Urtaroek ekartzen dituzten eguraldi aldaketen ondorioz, Gorbeialdeko abeltzainek mendiko larreak utzi behar izaten dituzte. Lehenengo elurteekin batera, artzainak eta beraien ganaduak haraneko barrutietara jaisten dira, mendia lurmendu eta belar berria ernetzen hasi arte bertan geratzeko.

Udaberrian natura neguko letargiatik iratzartzeaz batera, berriro hartzen dute gorako bidea basoko ganaduek, hurrengo negura arte Gorbeia landa emankor eta freskoetan bazkatzeko. Neolitotik dato-



Enrike eta bere artaldea Gorbeiarra bidean.

ren ohiturari jarraituz, Enrike Etxebarriak eta bere artaldeak Elexartza baserritik irten eta Arrabako landarainoko ibilbidea egin zuten maiatzaren 28an. Gorbeiatik jaitsi zenetik etxe inguruan zaindu zituen ardiak Enrikek, eta azken hilabeteetan neguan eta udaberrian artzaintzak eskatzen dituen lanak egiteari gogor ekin zion: lehenengo axurien jaiotza, hazkuntza eta salmenta, eta gero esne-batzea eta gaztagintza.



Baserritik abiatu aurretik artaldea bedeinkatu zuen Ana Mari Etxebarriak.



Ekainean eta uztailean gaztak egiten ditu Enrikek Gorbeian.

Gorbeiaiko egonaldia

Udaberria hasten denean Gorbeia mendian belarra hazten da, eta ganaduak hartzeko prest azaltzen dira larreak, janari gozoa eskainiz. Horregatik, bertara igo da Enrike artaldearekin, hurrengo bi hilabeteetan bere ardiek emango dioten esne aberatsaz goi mailako gaztak egiteko.

Uztailaren amaierara arte Lekandapean duen txabola izango da bere bizilekua, eta artaldea zaintzea, esnea batzea eta gaztak egitea egunero bete beharko dituen lanak. Horrelakoa izango da egunen joan-etorria, uztailaren 31k (San Inazio eguna) ardiak antzutu direla eta artzainaren udako mendiko egonaldia amaitu dela iragarri arte.



Enrike Etxebarria eta bere artaldea.

Enrike Etxebarria, artzantzari lotutako bizitza

1943an jaio zen Enrike Etxebarria, Zeanuriko Uribe auzuneko Elexartza baserrian, eta gaur egun bertan bizi da emaztearekin eta hiru seme-alabekin. Hamalau urte zituela, eskola utzi zuen eta aitonaren eta aitaren lanbideari heldu zion: artzaintzari. Artaldea zaintzeaz gain, 1960tik 1992ra arte Arrabako landan dagoen Mendi Federakundearen Aterpetxeaz arduratu ziran aita-semeak.

Gorbeiaiko txabola Arraban dauka, Lekanda haitzaren azpian hain zuzen ere, aitek eduki zuen toki berberean. Orain dela hogeita hamarren bat urte txabola berriztatu zuen, eta apurka-apurka gaur egungo beharrianetara egokituz joan da Enrike. Hala, eguzki energiaren bitartez lortutako argindarra dauka.

TRASHUMANCIA A LOS PASTOS DE GORBEIA

Aunque no con la fuerza de antaño, en los pueblos de Gorka-estribaciones de Gorbeia-, todavía persiste la actividad ganadera. Por estas tierras, tradicionalmente se ha pastoreado ganado vacuno, equino, caprino y, sobre todo, ovino. Los cambios climáticos obligan a los pastores a abandonar periódicamente la montaña, el lugar donde se encuentran los mejores pastos para su ganado. Así, con las primeras nevadas que en Gorbeia caen hacia finales de noviembre, los ganaderos y sus rebaños descienden a los pastos bajos del valle —barrutiak—, donde permanecen hasta que el manto nívico desaparece de las zonas elevadas y de nuevo comienza a crecer la hierba en los pastizales.

A partir de mediados de mayo, cuando la naturaleza despierta del letargo invernal, las diversas especies de ganado montesino son llevadas de nuevo a los pastos de Gorbeia, donde permanecerán hasta el invierno siguiente. Tras el letargo invernal los pastizales de altura ofrecen una rica y nutritiva hierba y es por ello por lo que todos los años Enrique Etxebarria conduce su rebaño a la majada de Arraba. Hasta finales del mes de julio la cabaña que posee bajo la peña Lekanda, será el lugar de residencia de Enrique, y el cuidado de su rebaño, el ordeño y la elaboración de quesos, las actividades que desarrollará diariamente.

